

## PRENTSA-OHARRA

2023ko uztaileak 19

# Gala-jantzian dator zientzia, hemen da Passion for Knowledge

Donostia International Physics Center-ek (DIPC) antolatutako nazioarteko zientzia-jaialdia urriaren 2tik 7ra egingo da

Pandemiak eragindako eten luzearen ondoren, 2023an bete-betean dator **Donostia International Physics Center-ek** antolatutako **Passion for Knowledge (P4K) nazioarteko zientzia-jaialdia**. Gala-jantzian helduko da zientzia gurera azken aurkikuntzak herritarrekin partekatzeko, **urriaren 2tik 7ra Donostian eta Bilbon** egingo den jaialdiaren edizio berri batean.

Passion for Knowledge irudi berrituarekin eta jende guztiarentzako jarduera-programa zabalarekin dator, zientziak gizateriaren onerako egin duen urrats bakoitza handikiro ospatzeko helburuarekin.

Nazioarteko zientzialari entzutetsu ugari bilduko ditu jaialdiak; besteak beste, hainbat Nobel saridun, azken hamarkadetako zientzia-aurkikuntza garrantzitsuenetako batzuen protagonista izandakoak. Hitzaldi nagusi ospetsuak **Victoria Eugenia Antzokian** izango dira, jaialdiaren egoitza nagusian. Espero dugu gure herritarren parte adierazgarri bat bertan elkartzea.

Era askotako ikusleentzako jarduera-sail batekin osatu da programa: Bigarren Hezkuntzako ikasleekiko topaketak, ikertzaile gazteentzako dibulgazio-saioak, erakusketak, haurrentzako tailerrak, ikuskizunak, bertso-saioa, Naukasen kolaboratzaileen eta streamerren dibulgazioa, proiektzioak, etab.

Laster emango dira ezagutzera 2023ko Passion for Knowledge jaialdiko jarduera guztiak eta gonbidatuen panela jaialdiaren web gunean: [p4k.dipc.org](http://p4k.dipc.org)

### **Ikasleen eta Nobel saridunen arteko topaketak: izen-ematea**

Passion for Knowledge jaialdiko ekitaldi ospetsuenetako bat ikasleen eta Nobel saridunen arteko topaketa jendetsuak dira; **top@DIPC – Zientziarekin solasean!** izeneko ekitaldiok Euskadiko ikastetxe guztiei zuzenduak daude. Topaketon helburu nagusia da gazteengan —bereziki, nesengan— zientzia ezagutzeko jakin-mina piztea eta bokazio zientifikoak sortzea.

Topaketak **urriaren 6an egingo dira Donostian, Victoria Eugenia antzokian, eta urriaren 3an Bilboko Bizkaia Aretxean (UPV/EHU)**. Topaketetako saio bakoitzean, nazioartean ospe handia duten ikertzaileak izango dira, Passion for Knowledge 2023ra gonbidatutakoen artean aukeratuak, eta **Pedro Miguel Etxenikek** egingo ditu saio guztietako moderatzaile-lanak.

Donostian, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle eta irakasleak honako ikertzaile hauekin bilduko dira: **María Vallet Regí**, Jaime I.a Erregea saria irabazi zuen 2018an, hezurak birsortzeko eremuan eta botikak modu kontrolatuan askatzeko

sistemetan egindako ekarpen aitzindariengatik; eta **Jack Szostak**, Medikuntzako Nobel saria jaso zuen 2009an, deskubritu zuelako telomero izenez ezagutzen diren DNA-kate errepikakor batzuek gure kromosomak babesten dituztela, telomerasa entzimarekin batera.

Bilbon, berriz, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak beste ikertzaile hauekin elkartuko dira: **Donna Strickland**, Fisikako Nobel sariduna 2018an, aitzindaria laserren arloan eta erreferentzia nabarmena emakume zientzialarien artean, historian Fisikako Nobel saria lortu duten lau emakumeetako bat baita; **Albert Fert**, Fisikako Nobel sariduna 2007an, magnetorresistentzia erraldoiaren asmatzaileetako bat izateagatik —fenomeno kuantiko horrek guztiz zilipurdikatu du disko gogorren teknologia, batetik, ikaragarri handitu duelako haien biltegitratzeko ahalmena eta, bestetik, elektronika-mota berri baten sorrera eragin duelako: espintronika, hain zuzen—.

Giro lasai eta hurbilean, ikasleek aukera izango dute zientzialari handi horiekin guztiekin hitz egiteko eta beren zalantzak eta galderak haiei zuzenean galdetzeko. **Izena emateko epea** irailaren 8ra arte egongo da zabalik Euskadiko ikastetxe guztientzat, jaialdiaren webgunean: [p4k.dipc.org](https://p4k.dipc.org)

Jaialdira gonbidatutako zientzialari-talde apartaren aurrerapen txiki bat besterik ez dugu eman hemen. Laster emango dugu Passion for Knowledge jaialdiaren 2023. edizioko jardueren programa erakargarriaren eta gonbidatuen xehetasunen berri, jaialdiaren webgunean: [p4k.dipc.org](https://p4k.dipc.org).

Jaialdiari buruzko azken berriak jasotzeko, eman izena jaialdiaren **newsletter**rean: <https://p4k.dipc.org/en/home#newsletter>